



AZAROAN ERE KULTUR JARDUERA UGARI

To.Pic zentroaren inaugurazioa izango da ekitaldi nagusia Tolosan; eskutik helduta helduko da Titirijai jaialdia » 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-11-04

VIIURTEA 1.818.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Gipuzkoan bakarra den erabilera anitzeko eraikin bat egingo dute

IBARRA Eguneko egoitza, erretiratuen etxea eta gazteei zuzendutako alokairu sozialeko 28 etxebizitza hartuko ditu


EPEAK Azpiegitura 2012an amaituko dela aurreikusi dute; 4.200.000 euroko inbertsioa egin behar dute bertan 6



Eskolako lanak aurrera doaz Adunan; Aste Santurako amaituko dituztela aurreikusi dute. ENERITZ MAIZ

LEKU GEHIAGO IZATEKO HANDITZE LANETAN ARI DIRA ESKOLAN

ADUNA Udan hasi ziren eskola handitzeko lanak, lehen parkea zegoen lekura zabaldu dutelarik; 446.291,18 euroko aurrekontua izan dute 3



2010eko egutegiko azala. IÑAKI UGARTEMENDIA

Iñaki Ugartemendia izan da Tolargiren eta Tolosagasaren lehiaketan irabazlea

TOLOSA Datorren asteazkenean egongo da herritarren eskura 2010eko egutegi berria 5



HITZAK bi sarrera du

**LAGUN ARO GBC
BIZKAIA BILBAO BASKET**
saskibaloj partidarako

Azaroak 8 • Igandea • 12:30ean
Donostiako Ilunben



sarrerak



HITZAK 2 sarrera pare ditu

**AKABA BERA BERA
ÜSKÜDAR**
Europako errekoa partidarako

Azaroak 7 • Larunbata • 16:30 ean • Donostiako Bidebieten

TXOKOA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira

Laburrak

Jai batzordearen bilera egingo dute bihar

KULTURA ● Festa batzordeak deituta, bilera egingo dute bihar. Kultur Etxean izango da, 19:00etan hasita, eta parte hartu nahi duten herritarrei bertaratzeko deia luzatzen diete.

Mus Txapelketa Azkarra izango da hilaren 14an

GIZARTEA ● Fronton kafetegian Mus Txapelketa Azkarra antolatu du hilaren 14rako. Beotibar pilotalekuan jokatuko dute, 16:30ean hasita. Jokua lau erregera eta sei hamarretako hiru ustelera jokatuko dira eta bikote bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu Fronton Kafetegian. Aldez aurretik egin ahaliko da, jeub@uskalnet.net helbidean izena emanez, edo bestela, 943 65 14 70 telefono zenbakira deituta. Lehenengo zortzi sailkatuek izango dute saria. Bikote irabazleak 1.500 euro jasoko ditu sari bezala, eta horrez gain, txapelak, garaikurrak eta babarrun kirol bat; bigarrenak 800 euro, garaikurrak eta kilo erdi babarrun; hirugarrenak 400 euro; laugarrenak 200 euro eta bosgarren, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren geratzen direnek 100 euro.

Emakume Abertzaleen Topaketan aurkezpena

GIZARTEA ● Emakume Abertzaleen IV. Topaketak egingo dituzte Tolosan, abenduaren 12an. Topaketak emakumeen artean aurkeztu nahi dituzte lehendabizi, eta hori dela eta, batzarrak antolatu dituzte Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bilgune Feministek. Tolosan gaur egingo dute batzarra, 19:30ean, Kultur Etxean.

'Bihotzetik hezi' hitzaldia etzi, Kultur Etxean

GIZARTEA ● Gurasoei, hezitzaileei eta irakasleei zuzenduta, eta Tolosako Barrearen Eskolak antolatuta, *Bihotzetik hezi* hitzaldia egongo da etzi, Kultur Etxean, 19:00etan. Alonso M. Pulido Martinek emango du. Irakaslea da, eta emozioetan oinarrituriko hezkuntzan aditua, barreterapian terapeuta eta erlaxazioko begiralea.

Abesbatzen ostean txotxongiloak

Kultura » To.Pic zentroaren inaugurazioa eta Titirijai jaialdia izango dira azaroko ekitaldi garrantzitsuenak.

INIGO TERRADILLOS

Abesbatzek izan dute pisu nagusia urrian, eta lekukoa txotxongiloek pasako diete azaroan. Izan ere, Titirijai Nazioarteko jaialdia izango da, baina era berean, To.Pic txotxongiloen zentroa inauguratuko dute. Babarrunaren Astea eta Uxolaren omenezko ekitaldiak ere izango dira hilabete honetan nabarmentzekoak.

Aranburu jauregia

■ **Natxo Barberena.** Pintura erakusketa izango da ikusgai azaroaren 14ra arte.
■ **'Ahazturiko krisiak aintzat hartzen ez diren bizitzak'.** Mugarik Gabeko Medikuek erakundeak antolaturiko argazki erakusketa izango da ikusgai, etzitik azaroaren 14ra arte.
■ **Titirijai jaialdiko erakusketa.** *Quebec-era leihoa* izango da ikusgai azaroaren 26tik abenduaren 6ra arte.

Kultur Etxea

■ **'Bizitzeko beste moduak'.** Nai-robitarra taldeak antolatuta, ikus-entzunezkoa eta hitzaldia izango da Antxon Arzaren eskutik, bihar 19:00etan.



Errusiar leihoa izan zen iaz Aranburun. Aurten, Quebec-era leihoa...i.t.

■ **'Emakumea eta migrazioa'.** Tolosaldeko immigrazio zerbitzuak antolaturiko hitzaldia izango da, hilaren 10ean, 18:00etan.
■ **Odol-ematea.** Odol emaleen hileroko odol ateratzea, hilaren 16an, 18:00etan.
■ **EHU.** Aurkezpen irekia izango da, hilaren 23an, 18:00etan.
■ **Literatur hitzaldia.** Galtzaundik antolatuta, hilaren 24an izango da, 19:00etan.
■ **Titirijai.** Emanaldiak izango dira, hilaren 29atik aurrera.

Leidor aretoa

■ **'Papiro...Flexia'.** Breakdance eta multimedia ikuskizuna, hilaren 13an, 20:30ean.
■ **Zineskola: 'La ola'.** Ikasleentzat proiektioa, hilaren 16an.
■ **'Tinko'.** Zinema euskaraz, hilaren 19an, 09:00etan.
■ **'Lur sagar'.** Dantza ikuskizuna,

Biarritz Junior Balletaren eskutik, hilaren 20an, 20:30ean.

■ **Santa Zeziliako kontzertua.** Tolosako Musika Bandaren eskutik, hilaren 22an, 12:00etan.
■ **Titirijai.** Jaialdiko emanaldiak, hilaren 28tik aurrera.
■ **Zinema txioren jaialdia.** DVD proiektioak, Mugarik Gabeko Erakundeak antolatuta, hilaren 24, 25, 26 eta 27an, 20:00etan. Sarrera doan.
■ **Zine Foruma.**
■ *Despedidas*, bihar 19:15ean eta 21:45ean.
■ *Anticristo*, hilaren 12an, 19:15ean eta 21:45ean.
■ *El manantial de la doncella*, hilaren 19an, 19:15ean eta 21:45ean. Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira.
■ **Zinema.**
■ *Zorion perfektua*, etzi eta hilaren 7an.

■ *Frozen river*, hilaren 7an, 8an eta 9an.
■ *Kika superbruja*, hilaren 8an.
■ *Jenifer's body* eta *La huerfana* hilaren 14an eta 16an, beldurrezko mini maratona.
■ *Vicky vikingoa*, hilaren 15ean.
■ *Gigante*, hilaren 15ean.
■ *G Force*, hilaren 22an.
■ *500 dias juntos*, hilaren 22an eta 23an.
■ *Si la cosa funciona*, hilaren 27an eta 30ean.

Besterik

■ **Historia ikastaroa.** Lizardi elkar-teak antolatuta, hilaren 23ra arte.
■ **Haurren herri kirolak eta herri jolasak.** Dendariek antolatuta, hilaren 7an.
■ **Deabru beltzak.** Dendariek antolatuta, hilaren 14an.
■ **Estanislao Urruzola 'Uxola'-ren omenaldia.** Jaiotzaren mendeurrena dela eta, oroitarriaren inaugurazioa eta *Bidegileak* liburaren aurkezpena hilaren 13an, udal-txean.
■ **Hernaniko Banda.** Kontzertua, Zerkausan, hilaren 14an, 19:30ean.
■ **Gazte Topagunearen V. urte-muga.** Merienda, antzerkia eta argazki emanaldia, hilaren 13an, 14an eta 15ean.
■ **Babarrunaren Astea.** Hilaren 19tik 22ra.
■ **Liburuen Azoka.** San Frantzisko pasealekuan, hilaren 20tik 29ra.
■ **To.Pic zentroaren inaugurazioa.** Hilaren 27an, 19:00etan.



Iturrian udazkeneko jokoak

GIZARTEA ● Udazkeneko jokoak izan dituzte urrian Iturria jubilatuek elkartekoen, «parte-hartze handiarekin». Hauek izan dira irabazleak: tutean Telleria eta Lopetegi; puntuan Garaikoetxea eta Ayes-taran; bilarrean Iraola; tokan Rodri-gez; eta musean Veiga eta Sandoval. Parte-hartzaileak eta laguntzaileak eskertu nahi dituzte Iturria elkartekoen. KUSK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Arratsaldero bezala, langileak lanean ari ziren eskola handitzen ari diren zatian. E. MAIZ

Leku falta dela eta, eskola handitzeko lanetan ari dira

Aduna » Obrak udan hasi ziren eta Aste Santurako amaitzea espero dute. Ikasturteak berdin jarraitzen du aurrera.

ENERITZ MAIZ

Azken urteotan, herri txiki askotan gertatu den kontua da Adunako ere. Ez da arraroa herriko eskola txiki geratu izana. Adunako Herri Eskolan ere leku faltagatik duela urte batzuk arazoekin hasi ziren. Ondorioz, Udala Hezkuntzarekin harremanetan jarri zen eta azkenean, aurtengo udako oporretan eskola handitzeko lanak martxan daude.

Adunan, urtetik urtera, ikasle kopurua gorantz doa eta orain artean, gela batek funtzio asko bete behar izaten zituen. Handitze lanak bukatu ostean, hiru gela gehiago izango dituzte eta irakasle eta ikasleek, egunerokotasunean baldintza hobekiago izango dituzte.

Gaur egun 42 ikasle

Adunako Herri Eskolan, 2 urtetik hasi eta 11 urte arteko 45 ikasle inguru daude Arantza Aburuza alkateak adierazi digunez. Eta une honetan, zortzi irakasle egiten dute lan Adunako Herri Eskolan.

Adunako Udalak, 2008ko urtarriean egin zuen proiektua eta ondoren, Hezkuntzak lehiaketara ateratu zuen. 2009ko apirilaren 24an, Iñadi eraikitzen izan zen lan hauek egiteko aukeratua eta ondoren, haurrak oporrak hartu

zituztela aprobetsatuz, uztailean hasi ziren lanean. Lan hauek egiteko aurrekontua berriz, 446.291,18 eurokoa izan da. Bestalde, lanean zuzendaritza lanak, Udaleko arkitetoak eta aparejadoreak egiten ari dira.

Bestalde, ikaslerik gaztetzoe-nek, Udalak utzitako beste eraikin batean ematen dituzte beraien klaseak.

438, 98 metro koadro gehiago

Eskola berria, lehengo parkea zegoen lekura zabaldu dute. «Aurreko legealdian hasi ginen eskola handitzeko asmoekin eta orduan, jakin genuen, gaur egungo eraikinari beste pisu bat gehiago ezingo geniola eman» dio Aburuzak. Hori horrela izanda, eskolaren ondoan zegoen parke alderantz handitu behar izan dute.

» ZENBAIT DATU

Herri Eskola

- 42. Ikasle inguru.
- 8. Irakasle.
- Irakasleak. 2 eta 11 urteko arteko ikasleentzako eskola da.

Proiektua

- 2008. Urtarrilean jada proiektua Udalak egin zuen.
- 2009. Apirilaren 24an esleitu zitzaion Iñadi Konstruktorek obra.
- 446.291,18. euroko aurrekontua du.
- 438,98. Eskolaren zati berriak izango dituen metro koadroak.
- 330,66. Erabilgarriak diren metro koadroak.

Guztira, 438, 98 metro koadro gehiago izango ditu eskolak. Bi solairutan banatu dute eraikina eta 330, 66 metro koadro izango dira erabilgarriak direnak. Bertan, 3 gela berri izango dira eta horietako bat, handiena, 84, 74 metro koadrokoa izango da. Komun berriak izango ditu eta igogailua ere jarriko diote.

Arantza Aburuza alkateak «barruko obrak egiteko, udako opor egunak baliatu zituzten eta orain kanpoko aldekoekin ari dira», azaldu digu.

Datorren ikasturtetik aurrera, Adunako haurrek eskola berria, handia eta egokia izango dute. Ez dute, eskolatik kanpoko gelarik behar eta gela bakoitzak bere erabilera izango du.

Ziurrenik, honez gero, Adunako haur gehienak zain egongo dira noiz bukatuko ote dituzten eskola berriko lanak. Baina oraindik, hila-bete luze batzuk dituzte eskola berria bukatu irakusteko.

Bi parke jolaserako

Eskolaren ondoan parke berria dute Adunako haurrek. Parke hau, aurtengo Zapateroren dirulaguntzarekin egindakoa da.

Beste parkea aldiz, lekuz aldatu dute. Eskolaren handitze lanen ondorioz, eskolaren ondoan zegoen parkea kendu egin behar izan dute. Udal ordezkariak, bertan zegoen parkea botatzeak pena eman zien eta egokitu ondoren, Herriko tabernaren ondoan jarri dute.

Beraz, bi jolas leku eder dituzte herrian bertan jolasteko.

33-33´ guneko zozketei erreklamazioak egiteko epea irekiko dute

Zizurkil » Udaletxeko iragarki taulan eta web orrian jarri eta biharamunetik hasita zortzi egunetan egin ahalko da.

ERREDAKZIOA

Urriaren 28an, Zizurkilgo 33-33´guneko babes ofizialeko etxebizitza, garaje eta trasteleku zozketa egin zen. Orain, behin-behinekoko zerrenda eta itxaron

zerrenda onartu dute eta ebazpen honen I. Eranskinean jasota daude.

Ebazpen hau eta eranskina, udaletxeko iragarki taulan eta www.zizurkil.com web orrian jarriko dira eta bertan jarri eta biharamunetik kontatzen hasita zortzi lan eguneko epean interesatuek erreklamazioak jartzeko aukera izango dute. Udalak erreklamazioak ebazti ondoren, esleipiduen zerrenda eta itxaron zerrenda behin betirako onartuko dira.



Aurreko urtean esker ona jaso zutenak. HITZA

Herriko kirolariei egindakoa eskertzeko deialdia zabalik dago

Zizurkil » Abenduan egiten duten Kirol Astean, Kirol Batzordeak, herriko kirolariei omenaldi xumea egingo die.

E. MAIZ

Abenduan antolatzen duten Kirol Astean, Zizurkilgo Kirol Batzordeak, urte bakoitzeko zizurkildar kirolari txapeldunei, euren esfortzu eta ahaleginak baloratzen saiatzen dira.

Esker ona adierazteko, diploma bat eta Urkamendi Elkartean antolatzen den afaria izaten dituzte. Honen helburu bakarra, herriar kirolariei, euren esfortzua dela medio, omenaldi xume bat egitea izaten da. Baina horretarako baldintza batzuk bete behar dira aurretik.

Alde batetik, zizurkildarra izan, Zizurkilen bizi edo Zizurkil herriarekin harreman berezia izan behar du. Bestetik, 16 urte edo gehiago izan behar du, honek haurren artean kompetitibitatea ekiditea du helburu. Eta gainera,

Gipuzkoako txapelketaren bat edo goragoko kategoriako txapelketaren bat irabazi izana edota garrantzi berezia duen probaren bat irabazi edo ondo aritzeagatik jaso dezake errekonozimendu hau.

Kirolarien zerrenda, irailetik aurrera egiten diren Kirol Batzordeko bilereetan osatzen joaten da eta edozein herritarrek proposamenak bidali ditzake Udaletxeko Kirol Zerbitzura, hau da, Zizurkilgo Udala Bulegoak, Aurrera Plaza 3ra; 943692495 telefono zenbakiz deituz edota kultura@zizurkil.com helbidera idatziz.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako enpresa bat, zerbitzari lanetan esperientzia duen neska baten bila dabil. Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko izango da. Interesatuak, deitu 661463193 telefono zenbakira.

» EGITARAUA

Azaroak 6, etzi

■ **22:00.** Antzerkia Larrunarri pilotalekuan, herritarrek antzeztuta.

Azaroak 7, larunbata

■ **19:00.** Ugarteko elizan, Villabonako Eresargi abesbatzaren emanaldia.
■ **20:30.** Sardina eta saiheki jatea Ugarten. Txartelak herriko tabernetan salgai.

Azaroak 8, igandea

Errotazarren inaugurazioa
■ **11:00, 12:00 eta 13:00.** Errota, Zazpitu zentrala eta energi berri zuzenaren erakusketa ikusteko aukera, zirkuitu gidatu bat egingez.

Azaroak 9, astelehena

■ **20:30.** *Pernando eta errota* hitzal-

dia Joxe Mari Oterminen eskutik, gela balioaniztean. Garikoitz Bernarasek gai honen inguruan egin duen proiektua aurkeztuko da ere.

Azaroak 10, asteartea

■ **18:00.** *Osteoporosia, nola arindua sintomak* hitzaldia, gela balioaniztean.
■ **20:30.** *Erleen mundua* hitzaldia, gela balioaniztean.

Azaroak 11, asteazkena

San Martin Eguna.
■ **11:00.** Meza San Martinen. Ondoren, bertan, Laja eta Landakan da trikitilariak eta bertsoan Bixente Gorostidi eta Patxi Etxeberrria.
■ **13:30.** Umeen bazkaria jan-gelan.
■ **14:30.** Bazkaria Beartzana jate-

txean. Izena jate txean bertan eman behar da.

■ **16:00.** Larrunarri pilotalekuan, *Ino Ino badator Bonbardino* hau-rrantzako antzerkia. Ondoren, txokolatada denentzat.

Azaroak 12, osteguna

■ **20:30.** *Ipar gazi hego geza.* Bizikletaz familia giroan bidaiatzeko esperientzia hurbiletik ikusteko aukera, gela balioaniztean.

Azaroak 13, ostirala

■ **20:00.** Balioanizteko gelan, ardo kata. Parte-hartze mugatua du. Berataru nahi duenak, izena udal txean eman behar da.
■ **21:00.** Zahagi-ardoa frontoian. Aurrez dastatutako ardo izango da bertan. Jatekoa nork berea era-

man behar du. Ondoren, Itzel taldearekin berbera.

Azaroak 14, larunbata

Enirio-Aralar Mankomunitatearen 600. urteurrena dela-eta Aralarri omenaldia.

■ **12:00.** Txalpartarekin ongi-etorria agintariei San Martinen.

■ **12:30.** Ekitaldia: Guillermo Olmokin Atari eskulturren inaugurazioa bertsoari eta trikitilarietako girotuta.

■ **18:00.** Kontzertuak San Martinen Iker Goenaga eta Ruper Ordozikarekin. Eguraldi txarra egingez gero, Larrunarri pilotalekuan.

Azaroak 15, igandea

■ **22:30.** Feria eta herriko gazta lehiaketa.

G Gutunak

Zain dezagun mendia

Lerro hauen bidez, azkenaldian Txindoki mendian azaltzen ari diren pintaketak eta mendiaren gaitzak errespetu falta jarraituz salatu nahi nituzke.

Ez ditzagun hondatu geratzen zaizkigun altxor preziatu apurrik!

Zain dezagun mendia, merezi du eta!

Xabier Begiristain 'Nafiari'.

Tolosa.

L Laburrak

Txintxarri eguneko bazkariaren txartelak

ALEGIA • Urtero legez, Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak Txintxarri Eguna ospatuko du hilaren 15ean. Egun horretan Txintxarri Txiki eta Txintxarri Abesbatzek kontzertua eskainiko dute, eta horretaz gain, bazkaria egingo dute Txintxarri jate txean. Bazkariak txartelak salgai daude hilaren 9ra arte Kafe Letamendia, Landa, Jubilatuen taberna, Arruenea eta Kurpilen. Txartelak 35 euro balio ditu.

Herria Abian plataformak bilera egingo du bihar

TOLOSA • Aldaketa sozialaren aldeko Herria Abian plataformak bilera egingo du bihar, hilak 5, 19:00etan Tolosako LAB sindikatuaren egoitzan. Plataformako kideek herritar zein elkarte guztiak gonbidatu nahi dituzte bilera hartu eta ekarpenak egitera.

Herrigintza elkarteoen urteko bazkaria

IKAZTEGIETA • Ikaztegietak kros herrikoia antolatu dute hilaren 15ean eta, urtero bezala, ondoren Herrigintza elkarte bazkideen bazkaria egingo dute. 14:00ak inguruan hasiko da. 08:00etan prestaketa lanak hasiko dira eta lagundu nahi duenak bertara azaldu daiteke. Bazkariak 35 euro balio ditu. Izena eman nahi duenak gutun batean dirua eta izena jarri eta hilaren 12rako elkartearen buzoian sartu behar du.

Herritarrek prestatutako antzezlanak emango dio hasiera Kultur Asteari



Orain bi urte gazteek egindako antzezlan arrakastatsua izan zen. HITZA

Amezketak • Herriko dozena bat gazte egingo dute antzezlan; lan bila dabilen mutil baten abenturak kontatzen ditu.

IMANOL GARCIA

Amezketako Kultur Asteari herritarrek prestatutako antzezlanak emango dio hasiera. Etzi izango da hori eta hilaren 15a arte hainbat ekitaldi izango dira, tartean San Martin eguna ospatzea eta Enirio-Aralarren 600. urteurrena dela eta Aralarri San Martinen bertan egingo zaion omenaldia.

Antzerkia herriko dozena bat gazte egingo dute. Alaitz Labaien da horietako bat eta berak ere parte hartu zuen orain bi urte egin zuten

SOLAGÜEN 2004. urteko ERRESERBAko ardoa
6 botilako kutxa **60€**
12 botilako kutxa **72€**
SOLAGÜEN 2005. urteko ardo ONDUA

REMELLURI 2005. urteko ERRESERBAko ardoa
3 botilako kutxa **40€**
6 botilako kutxa **80€**

BRUT NATURE MAINEGRA
MENDABIAGO CAVA
MAHATS MATIAK: %50 vitona, %35 parellada, %15 chardonnay.
LEGTAN ONDUA:
Hogei hilitate baino gehiago.
AUREREN OROZKUA:
Bolumenaren %12, gutxi gorabehera.
6 botilako kutxa **39€**

Erosi **berriaren** plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte

943-30 43 45

www.berria.info

harpidetza@berria.info

Bidalketa gastuak doan



saskia!



6 botilako kutxa 75cl **36€**

saridunak
Sagrario Legarra (Villabona)
Jon Garmendia (Ibarra)
AKABA BERA BERA PARC SAGUNTO
Gaur + 18:00etan
Donostia Kiroleketan
sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin



Urtarrila: *Lapurdiko dantzariak*. MIREN ATXAGA



Otsaila: *Zerkausia*. JESUS GONZALEZ



Martxoa: *Tolosa lehen eta orain*. LEIRE ARZUAGA



Apirila: *Arraanean*. IBON AZPILIKUETA



Maiatza: *Graffiti*. IKER GEREÑU



Ekaina: *Uda solstizio kontzertua*. IZASKUN ETXETXIPIA



Uztaila: *Harri-jasotzailea*. JAVIER ORTIZ




Azuztua: *Txuleta kultura gastronomikoa*. JOSETXO GABARAIN



Iraila: *Lizardi bidegurutzeta*. JOSE ANGEL ARTUTXA



Urria: *Tolosa Kantari*. AMANDO HERNANDEZ



Azaroa: *Izotz ondoko eguzki*. IÑAKI UGARTEMENDIA



Abendua: *Haurtzarora gogoratuz*. IÑAKI UGARTEMENDIA

Egutegia osatzeko ederrenak

Gizartea » Iñaki Ugartemendiaren 'Garikano sagardotegia' argazkiak irabazi du Tolargik eta Tolosagasak antolatutako argazki lehiaketa.

ERREDAKZIOA

Tolosagasak eta Tolargik antolatutako argazki lehiaketak baditu dagoeneko irabazleak. Hauek, urtero moduan, Tolosako 2010 urteko egutegia osatzeko erabiliko dituzte.

Euskara eta kultura izan da aurtengorako antolatzaileek jarritako

gaia. Denera, 1.029 argazki aurkeztu dituzte, eta 49 parte-hartzaile izan dira. Horietatik Iñaki Ugartemendiaren *Garikano sagardotegia* aukeratu dute irabazle bezala. Beraz, argazki hori erabiliko dute egutegiaren azalerako. Horretaz gain, irabazleak urte osoko argindarra eta gasa doan izango ditu sari

bezala. Gainerako irabazleek, hau da, urteko 12 hilabeteetako erabiliko dituzten argazkien egileek ere izango dute saria: urte osoko argindarra edota gasa doan. Antolatzaileek parte-hartzaileen «maila ona» nabarmendu dute, eta bereziki, Iñaki Ugartemendiaren lana aipamatu dute; horren adierazle da azarorako eta abendurako ere bere argazkiak erabiliko dituztela.

2010 urteko egutegia herritar guztien eskura izango da datorren asteazkenetik aurrera, orduan egingo baitute aurkezpena.

» IRABAZLEAK

- **Azala.** Iñaki Ugartemendia: *Garikano sagardotegia*.
- **Urtarrila.** Miren Atxaga: *Lapurdiko dantzariak*.
- **Otsaila.** Jesus Gonzalez: *Zerkausia*.
- **Martxoa.** Leire Arzuaga: *Tolosa lehen eta orain*.
- **Apirila.** Ibon Azpilikueta: *Arraanean*.
- **Maiatza.** Iker Gereñu: *Graffiti*.
- **Ekaina.** Izaskun Etxetxipia:

Uda solstizio kontzertua.

- **Uztaila.** Javier Ortiz: *Harri-jasotzailea*.
- **Azuztua.** Josetxo Gabarain: *Txuleta kultura gastronomikoa*.
- **Iraila.** Jose Angel Artutxa: *Lizardi bidegurutzeta*.
- **Urria.** Amando Hernandez: *Tolosa Kantari*.
- **Azaroa.** Iñaki Ugartemendia: *Izotz ondoko eguzki*.
- **Abendua.** Iñaki Ugartemendia: *Haurtzarora gogoratuz*.



Ibarra-Zestoa-Oiartzun-Andoain taldeak irabazi zuen apustua. HITZA

48 plaza eta erdi eginda irabazi zuten ibartarrek apustua

Ibarra » 4.000 euro irabazi zituzten Ibarra-Zestoa-Oiartzun-Andoainekoak larunbatean izandako gizon-proba apustuan.

REBEKA CALVO

Giro ona izan zen pasa den larunbatean Aiako probalekuan. 620 bat pertsona gerturatu ziren Aiztondo-Oarso eta Ibarra-Zestoa-Oiartzun-Andoain tadeen arteko gizon-proba apustua ikustera. Zortzi kideetako bi taldeek 20 minutu izan zituzten 1.000 kiloko harriarekin plazak egiteko. Bigarengoek irabazi zuen apustua, azkenean, ozta-ozta izan bazen ere. Izan ere, lehenengoek 47 plaza eta metro gutxi batzuk egin zituzten eta bigarengoek, aldiz, 48 plaza eta erdi egin zituzten.

«Gu lehenengo ateraz gero 50 egiteko asmoa geneukan»

«Denak sartu ginen pisuan eta zozketan guri tokatu zitzaigun bigarren egitea. Hori ere abantaila izan zen, gu lehenengo ateraz gero 50 egiteko asmoa geneukan, ondo preparatuta zeuden eta», argitu du talde irabazlearekin prestaketa lanetan aritutako Joseba Iturrioz

ibartarrak. «Aiztondo-Oarsoko mutilek katea luze samarra eraman zuten eta guk berriz motzagoa, ondorioz aurrekoek eraman zuten karga gehiago», argitu du.

Mutilek leher eginda amaitu zuten, baina entrenamenduetan ondo aritu zirenez, «lan txukuna egin zuten guztiek», Iturriozen hitzetan.

«Apustuak bukatu dira jada»

Apustua, beraz, Ibarra-Zestoa-Oiartzun-Andoaineko mutilek irabazi zuten, hau da, 4.000 euro. Baina hau irabazita «apustuak bukatu dira jada», dio Iturriozek. «Guztia prestatzeko denbora behar da eta gauza asko ditugu egiteko, bukatu dira apustuak. Egunean bertan Aiako talde batek apustua egiteko tentatu nahi izan zigun, baina federaziokoek marka finkatu zuten eta nahi duenak marka hautsi dezala», argitu du.

4.000 euroak, hala ere, oraindik ez dituzte usaindu ere egin. «Ez da momentuan kobratzen, diru hori Aiako plazan dago oraindik. Oraindik ere federaziokoek dopingaren kontua zehaztu behar dute, ea norbaitek eman duen, ez... Bi taldeetako batek dopingean positibo ematen badu, dirua besteak eramango du», argitu du.

Etxebizitzak, erretiratuen etxea eta eguneko egoitza eraikin bakarrean

Ibarra » 4.200.000 euro bideratuko dituzte eraikin berria egiteko eta 2012. urterako amaituko dutela aurreikusi dute.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak Gipuzkoan bakarra izango den erabilera anitzeko eraikin batekin hornitzeko proiektua sustatu du. Eraikin horrek eguneko egoitza, erretiratuen etxea eta 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako alokairu sozialeko 28 etxebizitza hartuko lituzke.

Pasa den asteko Udaltzaban onaratu zuten proiektuaren idazketa eta obren zuzendaritzaren kontratazioarako baldintza plegua. Udalaren ustez, proiektu «garrantzitsu hau Lurralde Historikoko beste udalerririk txiki eta ertain batzuentzat eredu batean bihurtu daiteke».

2012. urterako

Eraikina 2012. urtean amaituko dutela aurreikusi du Udalak eta Txelo Romeo Ibarrako alkateak azpimarratu duenez, «ibartar guztien artean eragin positiboa izango du beharrik gehien duten gure gizarte taldeak, gazteak eta adineko pertsonak, baliabidez hornituko ditugulako».

Eraikina Behetikobiden egongo da kokatuta eta 4.200.000 euroko inbertsioa egin beharko du Udalak berai altxatzeko. Eraikina honetako eremu batean, gaur egun San Inazio auzoan dagoen erretiratuen etxea kokatu-



Eraikina Behetikobiden egingo dute, orain aparkalekua dagoen tokian. R. CALVO

ko da. Leku aldaketaren arrazoia, «erabiltzaileei kalitatezko zerbitzu bat eskaini nahi zaiela da», eta horretarako «ekipamendu hobe eta modernoagoekin hornituko» dutela argitu dute.

Era berean, Udala Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitz egiten ari da azpiegitura berean eguneko egoitza berria ere hartzeko. Eguneko egoitzak 20 adineko pertsonentzako zerbitzua eskainiko luke.

Gazteentzako etxebizitzak

Erabilera anitzeko eraikinean 28 etxebizitza egiteko asmoa ere badute. Etxebizitza hauek 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako izango dira eta dagozkien lurrazpiko aparkalekuak ere izango dituzte.

Udalaren nahia etxebizitza hauek gizarte-alkairuan eskaintzea da, «modu horretara etxebizitza bat eskuratu ezin dezaketen gazteen eskaerari erantzun ahal izateko».

Finantzaketari dagokionez, «oso inbertsio-ahalegin handia eskatzen digu, baina aldi berean,

arrazoituta dago ibartarren bizi kalitate nabarmen hobetuko delako», argitu du Romeo alkateak. «Mantentzen ari garen etengabeko hartu-emanen esker, Eusko Jaurlaritzaren aldetik obra hau aurrrera eramateko diru kopuru garrantzitsu bat eskuratzeko konpromisoa lortu dugu».

Euskal Jaurlaritzak, zehazki, aurrekontuko 4.200.000 euroetatik 1.120.000 euro jarriko ditu «apartamendu dotazionalen ekipamendua erosi eta instalatzeko». Laguntza honekin batera, «Eusko Jaurlaritzak 30 urterako 1.800.000 euroko mailegu kualitatiboa emango dio Ibarrako Udalarri». Udalak, ondorioz, ez du interesik oraindik lehen 10 urteetan.

Gainerako 1.300.000 euroak Udalak jarriko ditu banketxe-mailegu baten bidez. «Eragiketa honekin, udal-kutxak 300.000 euro jarriko ditu urtean -2010, 2011 eta 2012 urteetan zehar- maileguak ordaintzeko, hortaz, Udalaren zorra %5ean kokatuko da, oraingo %2an beharrean», zehaztu dute Udaleko arduradunek.

Euskal Kantu Txapelketaren azken kanporaketa, larunbatean

ERREDAKZIOA

Larunbat honetan jakingo da zein parteidek lortuko duen Euskal Kantu Txapelketako finalan aritzeko txartela. Izan ere, saio guztiak kontuan hartuta puntuazio altuena lortzen duten 12 parte-hartzaileak Donostian azaroaren 15ean jokatuiko den finalean ariko dira. Txapelketako bigarren kanporaketa, dena den, Zumaian izan zen pasa den larunbatean eta ber-

tan hamaika parte-hartzaile izan ziren. Antolatzaileek parteideek abestu zituzten hamabost kantetik bederatzi sorkuntza lanak izan zirela ere nabarmendu dute. «Portzentai handia da eta horri garrantzi handia eman dio Euskal Kantuzaleen Elkarteak, izan ere, helburuetako bat da kantariak euren sorkuntzak abestera animatzea eta horiek plazaratzeko aukera ematea», argitu dute. Zumaian ari-

tutako kantarien artean eskualdekorik ere izan zen: Zizurkilgo Iraia Martinez, zeinak Benito Lertxundiaren *Loretzoka* kantatu zuen; Asteasuko Naroa Geresta *Infernu berdina* izeneko sorkuntza lana aurteko zuena; Ibarrako Oihane Sarasola Su Ta Garren *Itxaropena* abestu zuena; eta Amasako Ioritz Galarraga, Oiartzungo Irati Odriozolaren kantua batera Alaitz eta Madirren *Oroitzak* kantatu zuelarik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Oihane Sarasola ibartarra. HITZA



Naroa Geresta asteasuarra. HITZA



Iraia Martinez zizurkildarra. HITZA

Oialde Txokon aurten ere euren lokala edukiko dute gaztetxoek

Leitza » Guraso talde bat eta hiru begirale dabilta lanean gazte lokalaren inguruan; boluntario gehiago eskatu dituzte.

ASIER IMAZ

Ikasturte berriari atek zabaldu zizkion Oialde Txoko gazte lokalak igandean. Iaz izandako arrakastak hainbat guraso berri ere lanean jarri ditu, eta hauek gustura daude, nahiz eta laguntza gehiago ere eskertuko luketen: «Joan den urtean oso harrera ona izan zuen Oialde Txokok. 12-16 urte bitarteko gazteak oso gustura ibili ziren bertan, eta aurtengoa ere adin horretan

«Gurasoei ere dei egiten diegu, txandak egiteko boluntario gehiago behar baitira»

ko gazte guztiak gonbidatuta daude. Gurasoei ere dei egiten diegu, denen artean txandak egiteko boluntarioak behar direlako».

Guraso talde baten ardurapean funtzionatzen du Oialde Txokok. Helburuen artean 12-16 urte inguruko gazteei elkartzeko toki bat eskaintzea aurkitzen da, baita «beraien adinerako egokiak diren ekintzak bultzatzea eta burutztea ere». Lokalean hiru begiralerekin

egonen dira gazteak eta atek aste-buruetan edukiko dituzte zabalik.

Txapelketak eta jolasak

Ikasturte hasierarekin gustura agertu dira gurasoak: «Pozgarria izandu zen igandean gaztetxo mordo bat kanpoan esperoan ikustea, lokala noiz irekiko zain. Horrek aurrera begira ere balio handia dauka». Guztira 40 bat lagun hurbildu ziren igandean Oialde Txokora. Bertan ping-pong-ean, mahai jokoetan eta aurtengo berrikuntzan, futbolinean, ibili ziren, besteak beste. Azkenik, gerturatu ziren guztiei bizkotxoekin txokolata eman zitzaizkien.

Ekimena sortu eta bultzatzen ari diren gurasoen esanetan, «denak gustura ibili ziren eta datorren astean berriz etortzeko gogoz bukatu omen zuten eguna». Ordurako hainbat txapelketa prestatu dituzte, begiraleek antolatuko dituzten jolas desberdinekin batera.

» ORDUTEGIA

- **Ostiralak:** 18:30etik 20:00etara: 15-16 urtekoentzat.
- **Larunbatak:** 16:30etik 18:30era: 12-14 urtekoentzat.
- **18:30etik 20:30era:** 15-16 urtekoentzat.
- **Igandeak:** 16:30etik 19:30era: 12-14 urtekoentzat.



Igandean zabaldu ziren Oialde Txokoko atek. Jolas egin ondoren merienda eduki zuten bertan gaztetxoek. HITZA

Kluben artekotik Nafar Jokoetara eta hemendik Euskal Herrira

Leitza » Bi finalerdi jokatu zituzten leitzarrek asteburuan, bietan irabazi ostean Kluben artekoan eta Errotxapean, finalera.

A. IMAZ

Aurrera Pilota Eskolakoek hainbat partida jokatu zituzten ohi bezala asteburuan.

Nafarroako Kluben Arteko Txapelketan Jaunarenak finalerdiak jokatu zituen, 22 urte azpiko mailan. Leitzarrek Madariagari 22-5 irabazi zion. Paleta Goman Iera Agirre-Saioa Aristorenak 30-13 irabazi zuten.

Nafar Jokoetan Amazabalen jaialdi polita ikusteko aukera egon zen larunbatean. Partida gehienak ordea etxetik kanpo jokatu zituzten Aurrerakoek. Markagailuei dagokienez, herri desberdinetako txapelketak azpimarratu behar dira.

Errotxapea, Lezama...

Olano-Gilek finalerdietako partida jokatu zuten Errotxapeako Txapelketan, infantil mailan. Lehia 18-17 irabazi ostean finalean aurkitzen dira. Jaunarena-Landiribar bikoteak 22-15 eko aldeko emaitza lortu zuen Lezamako Txapelketan eta Burlatan, Garzariena-Gilek 11-18 galdu zuten.

Euskaraz Areson eta Leitza

Kultura » Elkarlana oinarritzat zerbiztuak hainbat ekitaldi antolatu dituzte Areson eta Leitza ondorengo asteetarako.

ERREDAKZIOA

Leitza, Goizueta, Areso eta Arano euskara zerbiztuak antolatuta hainbat ekitaldi egingo dituzte azaroan eta abenduan.

Areson bihar

Etxepare Saria dela eta euskarazko album ilustratuen inguruan egiten ari den sustapen-lanaren barruan, euskara zerbiztuak ilustrazio-tailer bat antolatu du. Jon Zabaletak eman du, azaroaren 5ean, eskola orduetan, Aresoko eskolan.

Zinema euskaraz

Euskarabidearekin elkarlanean antolatutako *Zinema, euskaraz ere bai* zikloaren barruan, Leitza *Olentzero eta oparien ordua* ikusteko aukera egongo da abenduaren

20an. Areson berriz *Perez Sagutoa 2* eskainiko dute.

Azkenik Kultur Elejiraren baitan, UEMArekin elkarlanean, Areson Kiki eta Kokoren emanaldia egongo da abenduaren 3an.



TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

2009ko urriaren 27an izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin 2010. urteko urtarrilaren 1etik aurrera Ordenantza Fiskalak eta eranskinek aldatzea erabaki zuten. Hartutako akordioak Udaleko iragarki taulan ageri dira 30 egun aurretik zehazki; iragarki hau G.A.D. agertu eta hurrengo egun aurretik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espedienteaz aztertutako ahal izango dute eta egokitzat; jo dituzten errekamazioak aurkeztu. Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta errekamazioak edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik behar.

Tolosa, 2009ko urriak 27an
ALKATEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Zorionak!

Isma! Zurekin gaude. Maite zaitugu!



A Agenda

Deialdiak

■ **Amezketeta.** Logotipo Lehiaketa herriaren independentziaren 400. urteurrenean, Fernando Amezketarraren jaiotzaren 250. urtemugan. Lanak amezketa@udal.gipuzkoa.net helbidean edo udaletxean entrega daitezke.

■ **Tolosa.** Bilgune feminista antolatzen ari den Topaketa Feministen aurkezpena Kultur Etxean 19:30ean.

■ **Tolosa.** Azaroaren 14ean Mus Txapelketa Azkarra Beotibar pilotalekuan 16:30ean hasita. Lau erregera eta sei hamarretako hiru ustelera. Izen-ematea, 40 eurotan jeub@euskalnet.net edo 943 651470 telefono zenbakian. Bikote irabazleak 1.500 euro jasoko ditu.

Mendi irteerak

■ **Villabona.** Igandean Villabonako eskalatzailen Topaketa Peñartean (Carrascal), Aizkardi mendi-elkarteak antolatuta. Izen-ematea, elkartearen bertan: telefono zenbakia 649 717182.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. 943 675118.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrrak

mantangori rekin

Zinema etxean 4

6 DVD euskaraz

Larunbat honetan

Gipuzkoan eta Nafarroan

berria

HARPIDEDUNENTZAT. BILDUMA OSOAN 26 € ESKARIA. EGITEKO: 943 39 43 45. harpideta@berria.info edo www.berria.info

Babesleak: EUSKO JAURRIARITZA ERREKIBITU WISKO

aukera ezazu. BIZI euskaraz **berria**

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 2. alea

200 ERREZETA HARPIDUNEN ERREKIBITU WISKO

berriaren
harpidedun eta irakurleek
erdi prezioan **12€**

Bete ezazu **urriaren 18tik 31 bitartean** BERRIAN argitaratuko den **erreserba kupoia** eta utzi zure kioskoan **azaroaren 8a** baino lehen.

BI ASTEREN BURUAN KIOSKO BEREAN JASOKO DUZU LIBURUA.

Laguntzailea: **FAGOR**

aukera ezazu. BIZI euskaraz **berria**